

IRAGARKIA, ZERBITZU-EGINKIZUNETAN ARITZEKO JARRAIAN ADIERAZIKO DEN DEIALDIA ARGITARATZEN DUENA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIAREN 1/2005 JARRAIBIDEEK EZARRITAKO PROZEDURAREN ARABERA.

Lanpostua: BFE KARDIOLOGIA

Lantokia: BIDASOA ESKUALDEKO OSPITALEA

Betekizunak: (Agirien bidez egiaztatu beharko dira)

1º.- Kategoria bereko lanpostua jabetzan izanda, zerbitzu aktiboko egoeran egotea Osakidetzako edozein zentrotan.

2º.- Betetzen ari den lanpostuaz jabetu izana gutxienez eskabideak aurkezteko azken egunetik urtebete lehenago. Egoera horretan langilerik ez balego, zerbitzu-eginkizunak eman lekizkioke bi betekizun hauetako lehenengoa betetzen duenari.

Baremazioa:

– Egindako zerbitzuak, kategoria honen azken lekualdatze-lehiaketako deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

– Euskera jakitea, 67/2003 Dekretuan ezarritako irizpideen arabera.

Eskabideak aurkeztea eta epea:

Interesdunek eskabideko datu pertsonal guztiak bete eta *curriculum vitae*ekin batera (agiriak barne) bidaliko beharko dute Bidasoa Eskualdeko Ospitaleko Pertsonaleko Zuzendaritzara (Zubieta Soro, Mendelu Auzoa 20280 Hondarribia).

Aurkezteko epea 2006eko otsailaren 6tik 2006eko otsailaren 17tera bitartekoa izango da.

Epaimahaia:

Deialdi honetarako epaimahaia eratuko da. Epaimahaiburua Zuzendari Gerentea izango da eta epaimahaikideak Zuzendari Medikoa, Pertsonaleko Zuzendaria, eta langileen ordezkari bat. Idazkaria Pertsonaleko Zerbitzuko lankide bat izango da.

Hautatzeko prozedura:

Epaimahaia baloratuko du izangaiek aurkezten duten dokumentazioa eta lanpostua bete gabe utzi ahal izango du izangaiek ez badituzte betetzen eskatutako baldintzak.

Zerbitzu-eginkizunen iraupena:

Zerbitzu-eginkizunek iraungo dute lanpostua arauz bete arte; hala ere, Administrazioak askatasuna izango du onartutako zerbitzu-eginkizunak edozein unetan ezeztatzeko.

Hondarribian, 2006eko otsailaren 3a/Hondarribia, a 3 de Febrero de 2006
Iz./Fdo: Carlos Zulueta Guridi

ZUZENDARI GERENTEA / DIRECTOR/A GERENTE

IRAGARKI HAU ZENTRO GUZTIETAKO IRAGARKI TULAN JARRIKO DA 2006EKO (MES)OTSAILAREN 6AN PARA SU PUBLICACIÓN EN LOS TABLONES DE ANUNCIOS DE TODOS LOS CENTROS EL DÍA 6 DE FEBRERO DE 2006